

OÑATIKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE OÑATI
<p><u>Etxebizitza partikularretan su-detektagailuak jartzeko udal-laguntza arautzen duen ordenantza. 2021eko deialdia.</u></p>	<p><u>Convocatoria del 2021. Ordenanza reguladora de la ayuda municipal para la instalación de detectores de fuego en domicilios particulares.</u></p>
<p>Oñatiko Udalak, 2010eko uztailaren 22an izandako Udal Plenoan onartu zuen etxebizitza partikularretan su-detektagailuen jartzeko oinarriak, eta 2012ko martxoaren 28an izandako Udal Plenoak oinarrien aldaketa onartu zuen.</p> <p>Ordenantza eta ordenantzari egindako aldaketak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, 144 eta 67 zenbakietan, 2010eko uztailaren 30ean eta 2012ko apirilaren 10ean, hurrenez hurren.</p> <p>Onartutako Ordenantzak dio Udalak urtero onartuko duela ekitaldi bakoitzean zein adin tartekoentzat izango den laguntza.</p> <p>Aurrekoa kontutan hartuta, 2021eko urtarrilaren 20ko data duen 55 zkidun Alkate Dekretuz erabaki da hurrengo deialdia egitea 2021eko urterako:</p>	<p>El Ayuntamiento de Oñati en sesión Plenaria de fecha 22 de julio de 2010, aprobó las bases reguladoras para la instalación de los detectores de fuego en domicilios particulares, habiéndose modificado la misma en sesión Plenaria del 28 de marzo de 2012.</p> <p>Siendo publicada la ordenanza y la modificación de la misma en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 144 y 67 de fecha 30 de julio de 2010 y 10 de abril de 2012 respectivamente.</p> <p>En la mencionada ordenanza específica que El Ayuntamiento acordará para cada ejercicio la franja de edad de los beneficiarios de dichas ayudas.</p> <p>Por ello por decreto de Alcaldía nº 55 de 20 de enero de 2021 se acordó realizar la siguiente convocatoria de ayudas para el año 2021:</p>
<p><b>ZERA ERABAKI DU</b></p> <p>1.- Onartzea aipatutako dirulaguntzen 2021eko deialdia. Finantziarioa 2021eko Aurrekontuko 1.0500.683.231.00.02 2021(1934) diru-ataleko 5.100 eurokoa izango da.</p> <p>2. 2021eko eskaerak aurkezteko epea.</p> <p>Pertsona interesatuek, edo hauen ordezkariak, eskaerak gizarte zerbitzuetako bulegoetan aurkeztu beharko dituzte, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik 2021eko azaroaren 30era bitartean.</p> <p>3. 2021ean su-detektagailuak instalatzeko laguntza honako hauek eskatu ahal izango dutela:</p> <p>Aurten 80 urte egiten duten pertsonak eta etxean bakarrik edo 80 urte beteta dituen beste pertsonaren batekin bizi direnak.</p>	<p><b>ACUERDA</b></p> <p>1.- Aprobar la convocatoria de 2021 de las citadas subvenciones. Financiación con cargo a la partida presupuestaria 1.0500.683.231.00.02 2021(1934), por importe de 5.100 euros.</p> <p>2. Plazo de presentación de solicitudes en el año 2021.</p> <p>Las solicitudes serán presentadas por las personas interesadas, o sus representantes, en las oficinas de los servicios sociales desde el día siguiente a la publicación del anuncio hasta el 30 de noviembre de 2021.</p> <p>3. Durante el ejercicio 2021 podrán optar a la ayuda para la instalación de los detectores de fuego las personas que cumplan las siguientes condiciones: Las personas que cumplan 80 años en el presente ejercicio y que residan solas en el</p>

<p>Aurreko baldintzak bete ez arren, mendekotasun, bakardade edota arrisku egoeran bizi direnek ere eskuratu ahal izango dute laguntza, Udaleko Ongizate batzordeak baloratzen badu egokia dela laguntza ematea. Egokitasuna egiaztatzeko behar diren txosten eta balorazioak eskatuko dira.</p> <p>Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.</p>	<p>domicilio o en compañía de otras personas que tengan 80 años cumplidos.</p> <p>Personas que por razón de dependencia, aislamiento o riesgo evidente, aun no cumpliendo el requisito anterior se valore adecuado el recurso por la comisión de Bienestar social municipal, para lo que se requerirán las valoraciones e informes necesarios para demostrar dicha necesidad. Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.</p> <p>Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.</p>
<p>Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsioa aurkezteko Gobernu Juntari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke</p>	<p>No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.</p>
<p>Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori</p>	<p>Lo que se publica para general conocimiento.</p>
<p>Oñati, 2021eko urtarrilaren 23a.—Alkatea.</p>	<p>Oñati, a 23 de enero de 2021.—La alcaldesa.</p>
<p><b>OHARRA:</b> Iragarkia 2021eko otsailaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman da (37 zenbakia) BDNS identif 548693, beraz, eskaerak egiteko epea otsailaren 26tik azaroaren 30era bitartean izango da.</p>	<p><b>NOTA:</b> El anuncio ha sido publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 25 de febrero de 2021 (nº 37) BDNS identif 548693 , por lo tanto el plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día 26 de febrero y finalizará el 30 de noviembre.</p>

Oñatin, 2021ko otsailaren 25ean.  
Udal Idazkariak